Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko urriaren 7a, asteazkena — 192 — Miércoles, a 7 de octubre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

### Errentak eta Ordainarazpenak

*Musika Eskolako Ordenantzaren Aldaketa behin betiko onartzea.*

Arauzko informazio publikorako epea bukatu ondoren, erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe, finko eta behin betikotzat jotzen da 7.9. Musika Eskolaren onarpen akordioa, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2020ko uztailaren 23an, hasierako izaeraz, hartu zuena eta 2020ko abuztuaren 14a(e)ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zena (154 zenbakiaz). Ordenantzak 2020ko irailaren 01etik aurrerako ondorioak izango ditu. El texto íntegro de la Ordenanza se publica a continuación, al final de este anuncio.

Gipuzkoako Hazienda Lokalak Erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikuluak agintzen duenaren arabera, hau guztia argitara ematen da ezagutua izan dadin eta aipatu aginduak aurreikusten dituen gainerako ondorioak izan ditzan. Baita ere Andoaingo Udaletxeko web orrian: www.andoain.eus helbidean.

Interesatuek bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, izaera orokorreko xedapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Ohartarazten da, baita ere, helegitea aurkezteko epea ebazpena jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunean hasten bada ere, hori epea amaitzen den hilabetean, jakinarazpen- edo argitalpen-datari dagokion egunean, amaitzen dela. Egun hori jaieguna edo baliogabea bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Baita ere, jakinarazten da, helegite hori epea iraungitzen deneko egunaren hurrengo laneguneko 15,00etara arte aurkeztu ahal izango da, Epaitegiaren Idazkaritzan edo, bestela, egongo balitz, ezarri den erregistro nagusiko zerbitzuan edo bulegoan, Auzitegi Konstituzionalak martxoaren 14an emandako 64/2005 Epaiaren arabera.

Baita ere, aukeran eta Administraziorako auzibidera jo aurretik, Erreklamazio Ekonomiko Administratiboa aurkeztu ahal izango da Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean, hilabeteko epean, dagokion Ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Andoain, 2020ko irailaren 30a.—Maider Lainez Lazcoz, alkatea. (4944)

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

### Rentas y Exacciones

*Aprobación definitiva de la Modificación de la Ordenanza de la Escuela de Música.*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario, sin que se hayan presentado reclamaciones ni observaciones, se considera firme y definitivo el acuerdo de aprobación de la modificación de la ordenanza 7.9. Escuela de Música adoptado, con carácter inicial, por el Pleno Municipal en sesión celebrada el 23 de julio de 2020 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 154 de 14 de agosto de 2020. La misma se aplicará con efectos de 01 de septiembre de 2020. El texto íntegro de la Ordenanza se publica a continuación, al final de este anuncio.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el precitado artículo. También en la página web del Ayuntamiento de Andoain: www.andoain.eus.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la disposición de carácter general en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Se advierte que, si bien el plazo para la presentación del recurso comienza el día siguiente a la fecha de notificación o publicación de la resolución, finaliza el día equivalente a dicha fecha de notificación o publicación en el mes de vencimiento. Si el último día del plazo fuera inhábil o festivo finalizará el primer día hábil siguiente.

Asimismo, se informa que el recurso podrá presentarse hasta las 15 horas desde el día hábil siguiente al del vencimiento del plazo, en la Secretaría del Tribunal o, de existir, en la oficina o servicio de registro central que se haya establecido, de conformidad con la STC 64/2005 de 14 de marzo.

Asimismo, y si así se desea y previo a presentar recurso contencioso-administrativo, se puede presentar Reclamación Económico-Administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Gipuzkoa, en el plazo de 1 mes contado a partir de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de la Ordenanza correspondiente.

Andoain, a 30 de septiembre de 2020.—La alcaldesa, Maider Lainez Lazcoz. (4944)

| | |
|---|---|
| 7.9.- Udal Musika Eskola<br>7.9.- Escuela Municipal de Música | |
| I. Maila / Nivel I | |
| Tailerra / Taller | 222,10 € |

| | |
|---|---|
| II. Maila / Nivel II | |
| Funtsezko irakaskuntza + musika hizkuntza<br>Enseñanza principal + Lenguaje musical | 510,70 € |
| Funtsezko irakaskuntza + talde instrumentala edo korala<br>Enseñanza principal + Grupo instumental o Coro | 443,10 € |
| Funtsezko irakaskuntza +talde instrumentala edo korala + musika hizkuntza<br>Enseñanza principal + Grupo intstumental o coral + Lenguaje musical | 664,20 € |
| Funtsezko irakaskuntza + talde instrumentala + talde korala<br>Enseñanza principal + Grupo instrumental + Grupo coral | 592,70 € |
| Funtsezko irakaskuntza + talde instrumentala + talde korala + musika hizkuntza<br>Enseñanza principal + Grupo instrumental + Grupo coral + Lenguaje musical | 811,00 € |
| Funtsezko Irakaskuntza / Enseñanza principal | 379,80 € |
| Funtsezko Irakaskuntza(Abesbatza)<br>Enseñanza principal (Coro) | 174,60 € |
| Musika hizkuntza / Lenguaje Musical | 267,20 € |
| III. Maila / Nivel III | |
| Funtsezko Irakaskuntza + taldea edo taldeak<br>Enseñanza princiapl + Grupo o grupos | 443,10 € |
| IV. Maila / Nivel IV | |
| Taldea edo taldeak / Grupo o grupos | 152,30 € |
| Banda | Salbuetsita<br>Exento |
| Osagarriak (III eta IV mailak) / Complementarias (Nivel III y IV):<br>Harmonia modernoa / Armonía moderna | 177,10 € |
| Osagarriak (III eta IV mailak) / Complementarias (Nivel III y IV):<br>Mindfulness | 90,00 € |

II. maila: Funtsezko irakaskuntza (musika tresna, kantua edo tresnarantz edo kanturantz orientazioa) eta honi dagokion praktika (tresna edo kantua) eta musika hizkuntza.

III. maila: Funtsezko irakaskuntza (musika tresna edo kantua) eta honi dagokion praktika (tresna edo kantua).

IV. maila: tresnarantz edo kanturantz taldea.

III. eta IV. mailako taldeak: ganbera, konboak, orkestrak, abesbatza, banda.

* Salbuespenak:

Musika Hizkuntzan bakarrik matrikulatzeko, ezinbesteko baldintza izango da eskatzaileak jotzen duen funtsezko irakaskuntza Udal Musika Eskola honek ez duela eskaintzen ziurtatzea.

Funtsezko irakaskuntzan bakarrik matrikulatzen kasu berezietan besterik ez da onartuko, behar bezala arrazoituta dagoenean eta dagokionak horri buruzko txostena egin ondoren.

Funtsezko irakaskuntza abesbatza denean, gai honetan bakarrik matrikulatzen uzteko, hizkuntza musikaleko oinarrizko maila bat erakutsi beharko da eta Eskolan eskaintzen diren gainontzeko gaietan inongo interesik ez edukitzea.

Funtsezko irakaskuntza ikasketak udalerritik kanpo egiten dituzten ikasleei kuotaren % 50eko dirulaguntza emango zaie, beti ere Andoaingo Udal Musika Eskolak funtsezko irakaskuntza horren ikasketarik eskaintzen ez badu, eta 4 ikasturteko epe mugarekin.

* Ikasle indartuak:

Baldintza hori betetzen duten ikasturte horretan, ordaindu beharreko tasaren % 75aren gehikuntza izango dute indartutako ikasgaietan.

Nivel II: enseñanza principal (instrumento, canto u orientación al instrumento o al canto) y su correspondiente práctica (instrumental o coral) y lenguaje musical.

Nivel III: enseñanza principal (instrumento o canto) y su correspondiente práctica instrumental o coral.

Nivel IV: conjunto instrumental o coral.

Conjuntos del nivel III y IV: cámara, combo, orquestas, coro, band.

* Casos excepcionales:

Matricularse únicamente en lenguaje musical sólo se admitirá en el supuesto de que el solicitante acredite que la enseñanza del instrumento solicitado no existe dentro de la oferta de la Escuela de Música Municipal.

Matricularse únicamente en enseñanza principal sólo se admitirá en casos especiales debidamente acreditados y que serán informados por quien corresponda.

Matricularse únicamente en coro como enseñanza principal solo se admitirá en aquellos casos que se pruebe un nivel de lenguaje musical y no se tenga interés en ninguna otro disciplina impartida por la Escuela.

Se subvencionará con un 50 % de la cuota a los/as alumnos/as que cursen una enseñanza principal fuera de la localidad, siempre que la Escuela de Música Municipal de Andoain no imparta dicha enseñanza principal, y por un periodo máximo de 4 cursos.

* Alumnos/as reforzados/as:

Durante el curso en que cuenten con dicho refuerzo tendrán un recargo del 75 % sobre la tasa de las materias reforzadas.

EK\CV GAO-I-2020-04944

* Hobariak:

1. Familia ugariak:

Kategoria orokorra 3 seme-alaba arte: % 30a.

Kategoria orokorra 4 seme-alaba: % 50a.

Kategoria berezia: % 80a.

Interesatuek familia ugariaren titulua aurkeztu beharko dute.

2. Famili bereko ikasleak:

Udal Musika Eskolara doan familia-unitate bereko edo elkarrekin bizitzen diren bigarren partaidea duen 1. matrikulan % 15a.

Udal Musika Eskolara doan familia-unitate bereko edo elkarrekin bizitzen diren hirugarren eta hurrengo partaideek duten 1. matrikulan % 25a.

3. LGSra iristen ez diren 65 urtetik gorako ikasleak:

% 30eko hobaria izango dute.

4. Gutxienen musika tresnak:

Metalezko musika tresnetan matrikulak (tronpetak izan ezik), lehenengo bi ikasturteetan % 30eko hobaria izango du.

Langabezian dagoen ikaslegoari eta tresna hauetako batetan matrikulatzen bada, % 70 hobaria emango zaio.

Eskatzailea aurka ez badago, Andoaingo Udalak zuzenean egiaztatuko du sektore publikoko edozein erakundetan familia ugariaren titulua edo langabezian izena emanda dagoela dagozkion hobariak eskuratu ahal izateko.

LGSra iristen ez diren 65 urtetik gorako pertsonen kasuan, horiek baimena eman beharko diote Andoaingo Udalari azken ekitaldiko datu ekonomikoak kontsultatu eta hobaria jasotzeko eskatutako baldintza betetzen dituela egiaztatu dezan.

Udalak datu horiek kontsultatzearen aurka azaltzen bada edo baimena ematen ez badu eskatzaileak, honek dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Hobari hauek ez dira bateragarriak.

* Ordainketak:

1. ordainketa: 50,00 € izena ematerakoan, onarpenaren berri ematearekin batera. Matrikularen epea bukatu aurretik baja aurkezten ez baldin bada, diru hori berreskuratzeko eskubidea galdu egiten da.

Gainontzekoa ikasturtean zehar, 9 hilabetetan.

Covid-19-ak sortutako egoera dela eta, 2020/2021 ikasturtean klaseak egokitu eta on line eskeini beharko balira, onartutako tasak berdin aplikatuko dira.

* Bajak:

Ikasturtea hasi eta 7 egun naturalen epean baja eskaera idatzia aurkezten bada, izena ematearengatik ordaindutako 50,00 €-ak bueltatuko dira.

2020ko irailaren 30a baino lehen baja emateko eskaera idatzia aurkezten bada, hurrengo hilabetean jarriko da indarrean (2020ko irailako kuota ordaindu egin beharko da).

2020ko urriaren 1etik aurrera baja eskaera idatzia aurkezten bada, hilabete horretako eta ondorengo kuotak ezeztatzea edo, dagokionean, itzultzea onartuko da, honako kasu hauetan bakarrik, eta gainera, idatziz eskatu beharko da, kasuari dagokion ziurtagiria erantsiko delarik.

* Bonificaciones:

1. Familias numerosas:

Categoría general hasta 3 hijos: 30 %.

Categoría general con 4 hijos: 50 %.

Categoría especial: 80 %.

Los interesados deberán presentar el título de familia numerosa.

2. Miembros de la misma familia:

Segundo miembro de una misma unidad familiar o convivencial que acuda a la Escuela de Música, el 15 % de la cuota en su 1.ª matrícula.

Tercer miembro o siguientes de una misma unidad familiar o convivencial que acuda a la Escuela de Música, el 25 % de la cuota en su 1.ª matrícula.

3. Alumnado mayor de 65 años que no llegue al SMI:

Se les aplicará una reducción del 30 %.

4. Instrumentos minoritarios:

La matrícula en alguno de los instrumentos de metal (excepto trompeta), durante los dos primeros cursos, tendrá una reducción del 30 %.

El alumnado que esté en situación de desempleo, y que se matricule en alguno de estos instrumentos, tendrá una reducción del 70 %.

Siempre que la persona solicitante no se oponga, el Ayuntamiento de Andoain comprobará directamente en cualquier entidad perteneciente al sector público el título de familia numerosa o la inscripción en el desempleo para acceder a las bonificaciones que le correspondan.

En el caso de las personas mayores de 65 años que no llegue al SMI, éstas deberán autorizar al Ayuntamiento de Andoain a que recabe los datos económicos del último ejercicio para acreditar el cumplimiento de la condición requerida para el disfrute de la bonificación.

Si la persona solicitante se opusiera o no autorizara la consulta de esos datos, deberá aportar los correspondientes certificados.

Tales bonificaciones no son acumulables.

* Pagos:

1.er pago: 50 euros una vez notificada la admisión del/de la alumno/a. Si antes del último día del plazo de matrícula no se presenta la baja, se pierde el derecho a reclamar dicha cantidad.

El resto del importe lo abonarán durante el curso, en 9 mensualidades.

Si la situación creada por el Covid-19 obligase a adaptar las clases durante el curso 2020/2021 y a ofrecerlas on line, las tasas aprobadas se aplicarán de igual manera.

* Bajas:

Si en el plazo de 7 días naturales desde el inicio del curso se presenta la solicitud escrita de baja, se devolverán los 50,00 € abonados por la inscripción.

Si se presenta la solicitud escrita de baja antes del 30 de septiembre de 2020, causará efectos al mes siguiente (Deberá abonarse la cuota correspondiente al mes de septiembre de 2020).

Si se presenta la solicitud escrita de baja a partir del 1 de octubre de 2020, sólo se admitirá la anulación, o devolución en su caso, de las cuotas correspondientes a ese mes y posteriores a la fecha de baja en los siguientes supuestos y siempre y cuando se realice la solicitud por escrito y se justifiquen documentalmente.

EK\CV GAO-I-2020-04944

Lan baldintzen aldaketak (ordutegia, lekua, lanbidea... enpresaren ziurtagiri bidez).

Familia baldintzen aldaketa.

Ikasketa baldintzen aldaketa (ordutegia, lekua... ikastetxearen ziurtagiri bidez).

Osasun arrazoiak (mediku edo profesionalaren ziurtagiri bidez).

Ikasketa arrazoiak (tutore edo ikastetxearen ziurtagiria).

Herritik kanpora bizitzera joan izatea (errolda ziurtagiri bidez).

Baja eskaera kontuan hartzeko, idatziz aurkeztu beharko da, eta aurkeztutako hilaren hurrengoan jarriko da indarrean. Baja aurkezten den hilabeteko kuota ordaindu egin beharko da.

Ordainketetako atalean kuota guztiak ordaintzen ez dituzten ikasleek hurrengo ikasturteko matrikula berria egiteko eskubidea galduko dute.

* Indarraldia:

Tasa hauek 2020/2021 ikasturtean egongo dira indarrean.

Cambio de condiciones de trabajo (horario, lugar, profesión... por medio de justificante de empresa).

Cambio en las condiciones familiares.

Cambio de condiciones de estudios (horario, lugar... por medio de justificante de colegio).

Razones de salud (por medio de certificado médico o de profesional).

Razones de estudios (por medio de certificado del colegio o tutor).

Cambio de domicilio a otro municipio (por medio de certificado de empadronamiento).

Para que se considere la baja, se deberá solicitar por escrito y causará efectos al mes siguiente de la fecha de presentación de la misma. Es decir, que deberá abonarse la cuota del mes en el que solicita la baja.

Aquellos alumnos que no hayan abonado la totalidad de sus cuotas perderán el derecho a realizar la matriculación para el curso siguiente.

* Vigencia:

Estas tasas estarán vigentes durante el curso 2020/2021.

EK\CV GAO-I-2020-04944